

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIARI

Talde Popularreko bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udaltzaren Araudi Organikoaren 90. eta 91. artikuluan xedatutakoaren arabera, jarraian ageri **den TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZAREN** inguruko **ARAU PROPOSAMEN** hau aurkezten du, Udaltzaren azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Gobernu taldearen plangintza-eraketa eta Udaltzaren mugikortasun-politika negargarriak eragozpen handiak eragiten dizkie donostiar guztiei. Auto-ilarak, zaratak, eta beraz, kutsadura-maila handiagoak, lehen horrelako arazorik ez zegoen hiri batean.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergan hobari bat aplikatzea planteatzen dugu, aurreko urtearekin alderatuta, auto-ilarak areagotu egin direlako. Negoziazio-prozesu bat ireki behar da enpresa pribatu espezializatuekin, Donostia donostiarren onurarako proba-eremu bihurtzeko. Eragozpenak eta auto-ilarak areagotzen badira, zergatik ordaindu beharko genuke Espainiako trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergarik garestiena? Udaltzaren ez badu bere lana ondo egiten, zergatik ordaindu beharko genioke gero eta garestiagoa den prezio bat, eskaintzen dizkigun zerbitzu txarreatatik?

Ibilgailuen gaineko zergan donostiar guztiei % 5eko hobaria ematea proposatzen dugu, urtean auto-ilarak handitzen diren ehuneko puntu bakoitzeko.

Donostian, 2022ko abuztuaren 3an

Borja Corominas Fisas,
Udal Talde Popularreko bozeramailea